

"Txertatutako berrikuntzekin, euskarazko materiala gaztelerazkoa baino osatuagoa da»

Berrikuntza eta hobekuntza ugari egin ditu azken hilabeteetan Gidabaimenak Euskaraz ekimenak. Webgunea berritzeaz gain, materiala osatu eta eskuliburuak argitaratu dituzte, eta dagoeneko jasotzen ari dira egindako lanaren emaitzak



Iñaki Aizpurua, Jon Howick, Ander Moron eta Haritz Eizagirre, euskaratutako materiala eskuan dutela. AIURRI

Erredakzioa HERNANI

Aurrerapauso nabarmenak eman ditu azken hilabeteetan Gidabaimenak Euskaraz ekimenak. Otsailean hasi ziren eskuliburu berrituak banatzen, eta egindako lana Euskal Herriko autoeskola askotara helarazi dute. Material berriak dagoeneko eman ditu fruituak, eta prozesu horretako katebegi guztiak elkartu dira ondorengo elkarrizketan: Iñaki Aizpurua, Gidabaimenak Euskaraz ekimeneko arduraduna; Jon Howick, atal teorikoa euskaraz atera berri duen gaztea; Haritz Eizagirre, Usurbilgo Solozabal autoesko-

lako irakaslea; eta Ander Moron, Usurbilgo Udaleko euskara teknikaria.

Aurrerapauso handiak eman ditu azken hilabeteetan Gidabaimenak Euskaraz ekimenak. Zein puntutan dago orain?

IÑAKI AIZPURUA: Duela zortzi hilabete sinatu genuen hitzarmen berria, eta egindako lanaren zabalkunde fasean gaude orain. Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako autoeskola guztietatik ari gara pasatzen, eta bertako langileei erakusten diegu momentu honetan eskuragarri daukagun materiala. Webgunea ere berritu dugu, eta autoeskolei

eskaintzen diegu aukera bertan jarri ditugun testak eta bestelako materiala erabiltzeko.

Autoeskola guztietan dago atal teorikoa euskaraz egiteko aukera?

I.A.: Gidabaimenak Euskaraz webgunean ikusgai dago euskarazko eskaintza duten autoeskolan mapa, 120 inguru dira. Haiengana joaten garenean badaude itsu-itsuan onartzen dutenak, baina beste batzuk ez dira lehenengoan animatzen. Guretzat garrantzitsua da gidabaimena euskaraz atera nahi duten ikasleek jakitea euren herriko edo inguruko zein autoeskoletan daukaten aukera.

Jon, zu zara material berriekin gidabaimena euskaraz atera duen lehenengo pertsona. Zergatik hartatu zenuen euskaraz egitea?

JON HOWICK: Aukerarik logikoa iruditzen zitzaidan. Herriko jendearekin, lagunekin eta klasekideekin betidanik hitz egin dut euskaraz. Hortaz, gidabaimena ere euskaraz ateratzea zen naturalena niretzat.

Zer moduzkoa izan da esperientzia?

J.H.: Hizkuntzari dagokionez ez dut arazorik izan. Tarteka ba zeuden ezagutzen edo ulertzen ez nituen hitzak, baina irakasleari galdetuta edo pixka bat irakurrita erraz argitu ditut zalantza guztiak.

Usurbilen sei ikasleek atera dute teorikoa euskaraz material berriekin. Asko aldatzen da zure lan egiteko modua, Haritz?

HARITZ EIZAGIRRE: Ez, lana ez da asko aldatzen. Hitz bat lehenengo aldiz entzutean baliteke harridura pixka bat sortzea, baina hori euskaraz zein gazteleraz gertatzen da. Bertan ikusi duguna da gazte euskaldunek ez dakitela gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera dagoela, eta hori ezagutaraztea tokatzen zaigu guri. Gainera, plataforma berrian informazio guztia eguneratuta dago, materiala ondo osatu dute, eta iruditzen zait ez dagoela motiborik teorikoa gazteleraz egiteko. Plataforma zahararekin gertatu izan zaigu ikasle bat euskaraz hasi eta gaztelerara aldatzea, orain jada ez da gertatzen.

Gidabaimena euskaraz ateratzea zailagoa dela esan ohi da. Zurrumurru hori iritsi zaizue? Zer deritzozue?

J.H.: Bai, niri behintzat bai. Lagun zaharragoek esan izan ditate euskaraz zailagoa dela, edo

galdera arraroagoak daudela; baina haiek gazteleraz atera zuten. Nire kasuan, prozesua oso normala izan da, pixkanaka kontzeptuak barneratzen joan naiz eta azterketara ondo prestatuta iritsi nintzen. Proban egokitu zitzaizkidan galdera guztiak neuzkan aurretik landuta.

H.E.: Plataforma zaharrean 40 test inguru zeuden, eta orain 115etik gora daude; gaikakoak, azterketaren estilokoak eta ohiko akatsekin sortutakoak. Galderen kopurua handitzeak asko laguntzen du ikasleak prestatzeko garaian. Informazio guztia eguneratuta egotea ere ezinbestekoa da, eta horretan nabarmena izan da aurrerapausoa. Webgunean bideoak txertatu dituzte zenbait arau errazago ulertarazteko. Esango nuke euskarazko materiala hobea dela gaztelerazkoa baino.

I.A.: Gaiak eta testak itzultzeko UZEIren eta IVAPen laguntza izan dugu. Elkarlan horrekin lortu duguna da erabiltzen den terminologia, esamoldeak eta galdetzeko erak berdinak izatea prozesu guztian. Alegia, material horrekin prestatzen den ikasleak formulazio antzekoak topatuko dituela azterketa egiten duenean. Orain arte azterketa euskaraz egin duten ikasleek esan digute erraz ulertu dituztela galderak, itzulpen garbiak direlako eta terminologia egokia delako.

Aldakorra da legeen mundua. Webgunea eguneratuta mantentzeak lan handia eskatzen du, ezta?

I.A.: Bai. Guk beti esaten dugu proiektu hau bizirik dagoela. Egunero gaude berritasunei adi; taldean adituak eta autoeskole-tako irakasleak dauzkagu, eta galderak zein informazioa aldiro berrikusten dugu. Oso garrantzitsua da autoeskoletan dugun harremana zuzena izatea, bertan lanean dabilzanak ohar-tzen direlako zeintzuk diren ikasleen zailtasunak, eta iritzi horien arabera egiten ditugu hobekuntzak.

H.E.: Hori da. Materialari buruzko edozein arazo helarazten diegu. Argazki bat kargatzen ez bada edo itzulpen bat ez bada egokiena, esan egiten diegu. Oso harreman zuzena daukagu.

I.A.: Gure lana ez da liburuak autoeskola batean utzi eta hurrengora joatea, bakoitzaren ekarpena kontuan hartzen dugu. Azterketei buruz galdetzeko ere



AM, A1, A2 eta B gidabaimenak ateratzeko materiala dago eskuragarri. AIURRI

deitzeko ohitura daukat, datuak eta emaitzak zeintzuk izaten ari diren jakiteko.

Ikasleek euskararen aldeko hautua egiteko giltzarrietako bat da autoeskolako irakaslea, ezta?

H.E.: Bai, eta aukera hori bada-goela ezagutarazten saiatzen gara. Ikasleak galduta iritsi ohi dira autoeskolara, eta gure ardua da adieraztea baduela gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera, udalerrri euskaldunetan batez ere. Nik gazteleraz atera nuen karneta, euskaraz egingo nukeen, baina ez nekien aukera bazegoenik ere. Horregatik da garrantzitsua hori azaltzea, jendeak jakin dezan euskarazko material oso egokia daukagula.

I.A.: Gertatzen zaiguna da herri oso euskaldunetako autoeskola batzuetan harrera egiten duen pertsonak ez dakiela euskaraz. Orduan, haiek esaten digute ez zaiela gure proiektua interesatzen. Hala ere, irakasleak euskaraz ez jakiteak ez du esan nahi herriko ikasleek ez dutenik aukera hori izan behar.

Haritz lehen esan duzu ikasle batzuk euskaraz hasi eta gaztelerara pasa izan direla. Material berriarekin hori ekiditea lortu da?

H.E.: Azken bolada luzean ez da aldaketarik izan. Plataforma berria martxan jarri dutenetik inork ez du berebiziko zailtasunik izan, eta martxa onean joan dira ikasle guztiak. Azterketak egiten hasi dira dagoeneko ikasle horiek, eta oraingoz gehienek lortu dute gaunditzea. Oraindik sumatzen dut hasieran zailtasun etortzen direla batzuk, euskarazko materiala zailagoa denaren aurreiritziarekin. Hala ere, gure azalpenak entzun ondoren, euskaraz egin nahi duten horiek segituan animatzen dira.

Plataforma berriarekin atal teorikoa oso indartuta geratu da, baina praktikoan lan asko dago egiteko.

I.A.: Aztertzaileetan dago gabezia. Autoeskola askotan irakasleak ondo hitz egiten du euskaraz, eta normalean hala ematen dituzte klaseak. Hala ere, azterketaren egunean agindu guztiak gazteleraz jasoko dituztenez, argibide horiek gazteleraz esaten dituzte. Bide horretan urratsak ematea falta da, irakasleen zein aztertzaileen aldetik.

Solozabalen nola egiten duzue?

H.E.: Iñakik aipatu duen moduan; klasean zehar euskaraz egiten dugu, baina azterketarako prestatzen ari garenean, edo azterketaren simulazioa egiten dugunean, gaztelerara pasatzen gara. Azterketa ahalik eta ondoen irudikatzea da asmoa, eta hiztegia oso oinarritzkoa izan arren, horixe lantzen dugu.

J.H.: Hasieratik esan ziguten azterketa praktikoa gazteleraz egin behar genuela, eta horregatik jasoko genituela argibide zehatzak gazteleraz. Nik hasieran ulertzeko zailtasun pixka bat izan nuen, baina segituan egokitu nintzen egoera horretara.

Urratsak ematea falta dela diozue. Badago aurrera egiteko aukerarik?

I.A.: Irakasleei dagokienez, uste dut urte gutxiren buruan autoeskola askotan egongo direla azterketa praktikoa eta klaseak euskaraz azaltzeko gai diren pertsonak. Garrantzitsuena eta zailena azken urratsa da, aztertzaileena. Hor iruditzen zait zailagoa izango dela aldaketa. Konpetentzia Madrilen dagoen momentutik asko zailtzen da guztia. Gipuzkoan dauden zazpi aztertzaileetatik sei beste probintzia batetik etorri dira.

H.E.: Ikusarazi behar diegu geroz eta jende gehiago ari dela teorikoa euskaraz ateratzen. Hori ikusten badute agian buelta bat emango diote atal praktikoa ere. Dena den, niri ere iruditzen zait denbora pixka bat egon beharko dugula zain.

I.A.: Hori da, sortu dugun materialaren erabilera handia izateak asko lagunduko luke bide horretan. Orain egindako lanaren zabalkundea egiten ari gara, eta hurrengo fasean erabileran jarriko ditugu gure indar guztiak. **Kotxeko karnetaz hitz egin dugu orain arte, baina beste gidabaimen batzuk ere atera daitezke euskaraz, ezta?**

I.A.: Bai, bai. Zikomotorraren AM baimena, motorren A1 eta A2 baimenak, eta autoaren B baimena ateratzeko materiala dago eskuragarri. Gainera, une honetan atoiaren baimena ateratzeko materialaren itzulpena amaitzen ari gara. Hori egin ondoren etorriko dira kamioiaren C1 eta C baimenak, eta autobusaren D1 eta D baimenak. Azkenik, puntukako gidabaimena berreskuratzeke kurtsoa ere euskaratuko dugu. Helburua da abendurako material guztia prest edukitzea. **Prozesu honetan zein izan da Buruntzaldeako udalen rola?**

ANDER MORON: Buruntzaldeko sei udalak aspalditik aritu dira gidabaimena euskaraz ateratzeko sustatzaile lanetan. Autoeskolekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Trafiko Zuzendaritzarekin elkartu izan gara, eta hizkuntzaren gaia aintzat hartzeke eskatu izan dugu. 400 euroko saria ere sortu genuen gidabaimena euskaraz ateratzeko pizgarri modura. Gazte askok hori ere kontuan hartuko zuten hautaketa egiteko garaian. Txikita-

sunetik eragiten saiatu gara Buruntzaldeatik; UEMAn dauden hiru udalerrri dauzkagu, eta anomalia bat da euskaraz bizi, euskaraz ikasi eta esparru honetan gazteleraz jardun behar izatea.

Bestalde, atal praktikoa irudikatzeke dagoen arazoa, Espainiako Trafiko Zuzendaritzak duela eskumena. Hala ere, aztertzaileak espainiarrak izanagatik, bertako herritarrek badituzte eskubideak, horregatik egoera salagarria dela iruditzen zait. Herritar euskaldun batek duen eskubidea ez du bermatzen berez bermatu beharko lukeen erakunde batek.

Orain emandako pausoa sekulakoa izan da, eta nabarmentzeko modukoa da euskarazko materiala gaztelerazkoa baino egokiagoa dela. Faltza dena da prozesu osoa euskaraz egin ahal izatea. Gaur arte ahoz ahokoak eragin handia izan du, txarretarako batzuetan, eta orain da momentua beldur horiek uxatzeko. Gazteen artean zabaldu behar da euskaraz egin duten horiek gustura aritu direla.

Guzti hau esanda, jendeari gomen datuko zenioke gidabaimena euskaraz ateratzea?

J.H.: Bai, zalantzarik gabe. Prozesua oso naturala da, kalean euskaraz hitz egiten dugun bezalaxe egiten dugu autoeskolan. Ez da zailagoa eta ez dut inolako arazorik izan.

H.E.: Teoria beti izaten da astuna, baina edozein hizkuntzan gertatzen da hori. Rotondari biribilgune deitzeak lehenengo aldian bakarrik sortzen du harridura. Beldurra ezjakintasunetik dator, eta guk argi diegu hizkuntzak ez duela zailtasuna areagotzen.

«GUK BETI ESATEN DUGU PROIEKTU HAU BIZIRIK DAGOELA. EGUNERO GAUDE BERRITASUNEI ADI, ETA GURETZAT OSO GARRANTZITSUA DA AUTOESKOLEKIN DUGUN HARREMANA ZUZENA IZATEA»

IÑAKI AIZPURUA

«GIDABAIMENA EUSKARAZ ATERATZEA LOGIKOENA ETA NATURALENA IRUDITZEN ZITZ AidAN, HERRIKO JENDEAREKIN, LAGUNEKIN ETA KLASEKIDEEKIN BETIDANIK HITZ EGIN DUDALAKO EUSKARAZ»

JON HOWICK

«PLATAFORMA BERRIAN EGUNERATUTA ETA OSATUTA DAGO INFORMAZIOA. UNE HONETAN ESANGO NUKE EUSKARAZKO MATERIALA HOBEA DELA GAZTELERAZKOA BAINO»

HARITZ EIZAGIRRE

«HERRITAR EUSKALDUN BATEK DUEN HIZKUNTZA ESKUBIDEA EZ DU BERMATZEN BEREZ BERMATU BEHARKO LUKEEN ERAKUNDE BATEK, ETA HORI SALAGARRIA DELA IRUDITZEN ZAIT»

ANDER MORON

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



KOMUNITATEA

**ONDARRETA
HERRI ESKOLA**
ANDOAIN

Ikasturte amaierako festa



Aurtengo jaiaren afitxa. AIURRI

Datorren larunbatean, ekainak 1, Ondarreta Herri Eskolako ikasturte amaierako festa ospatuko du. Aurtengo egitaraua honako hau da: goizean bertsolariak ariko dira eta, horrez gain, ziklo desberdinetako ikasleen abesti eta dantza-emanaldia izango da. Eskaintza zabala egongo da: pintxo, tortila eta postre lehiaketan parte hartzeko aukera izango da, hainbat tailer eskainiko dira eta Leizaran ikastetxeko ikasleek bigarren eskuko produktuekin azoka jarriko dute. Eguerdian berriz, guraso, ikasle eta irakasleen bazkaria izango da jolastoki estalian. Arratsaldean ikasturte amaierako festa jarraipena izango du. Askoren artean, txikienek puzgarriekin gozatzeko aukera izango dute.

ERREDAKZIO-MAHAIA

**AIURRI
ASTEKARIA**
ANDOAIN, URNIETA

ESCIVIko eta Salestar ikastetxeko ikasleen praktikaldia, Aiurrin

Andoingo eta Urnietako Lanbide Heziketako ikastetxeekin hitzarmena sinatu du Erroitzek

Erredakzioa ANDOAIN

Asteotan bi ikasle murgildu dira erredakzio taldean. Alde batetik, Egoitz Torres goierritar gaztea. Lanbide Heziketako maila ertaineko gradua ikasten ari da Andoingo ESCIVI zinema eta bideo eskolan eta, hainbat astez, Aiurrin aritu da argazki-bildumen eta bideoen edizioan. Beste aldetik, Oarsoaldeko Manu Hernandez gazteak argazkigintzari eta diseinuari loturiko lanak egin ditu Aiurrin. Ikasturte honetan Urnietako Salestar ikastetxean diseinu grafiko ikasten ari da eta hiru asteko egonaldia egin du aiurritarren artean. Denentzat esperientzia aberasgarria izan da: Aiurri-Erroitzek ikas-



Egoitz Torres ikaslearen tutore lanetan aritu da Jon Ander Ubeda. AIURRI

leen formakuntzan laguntza eman du eta, ikasleek eta ikastetxeek, beren aldetik, jarrera bikaina erakutsi dute.



Manu Hernandez ikaslearen tutore lanetan aritu da Maddi Trutxuelo. AIURRI

KOMUNITATEA

**LEIZARAN BHI
INSTITUTUA**
ANDOAIN

BERRIA ikasgelatik saria

BERRIA egunkariaren "Berria Ikasgela" izeneko sariketaren lehen edizioak arrakasta itzela izan du, eta saridunak Leizaran BHI institutuko DBH 1 mailako ikasleak izan dira. Sariketaren lehen edizioan, orotara, Andoingo ikastetxeaz gain, beste bederatzik ikastetxe hartu dute parte. Denera, lauogeik kazetari lanetik gora aurkeztu dira.

Gure ikastetxetik 'Euskara eta Literatura' ikasgaietan landutako hamazazpi lan bidali genituen. Saridunak DBH 1 D eta E ikasgeletako ikasleak izan dira. Euren lana Aranzadi Zientzia elkartera egindako irteera baten harira egindako elkarrizketetan oinarritu da.

Berriki, BERRIA Ikasgelako arduradun Ainhoa Oiartzabal eta hainbat kazetari hurbildu ziren ikastetxera, saria banatu eta ikasleei elkarrizketa bat egin asmoz. DBH 1, 2 eta 3ko ikasleak elkarrizketatu zituzten. Dagoeneko argitaratu da albistea, "Elkarrizketatzaile trebean" izenburupean, paperean nahiz edizio digitalean.

Gehiago jakin nahi? Bada, entzun gure ikasleen esperientzia Berria.eus webgunean.

KOMUNITATEA

**AITA LARRAMENDI
IKASTOLA**
ANDOAIN

Ipuinak opari



Aurtengo jaiaren afitxa. AIURRI

Baziren behin LH 4. mailako hiru gela. Ikasleetako batzuk irudimen handikoak ziren eta beste batzuk, berriz, idazle apartak. Gelan ipuinaren zatiak, pertsonaien deskribapenak eta abar landu ondoren, ipuin bana idatzi zuten. Marrazkilari trebeak ere bazirenez, ipuinei ilustrazioak egin zizkieten. Ipuinak bukatutakoan, LH 3. mailakoengana joan ziren, saiakera eta ilusio handiz sortutako ipuinak irakurtzera eta oparitzera. Pozik eta harro, 3. mailako ikasleekin momentu goxoa pasa zuten. Ipuinen irakurketa eta idazketaren kateak ez du etenik, batzuek jasotzen dutena ematen baitute hurrengoan! Kateak aurrera jarrai dezala!



AIURRI

Hiribus zerbitzua, eraberrituta

Hiribus berria dabil Andoingo kaleetan. Zerbitzuan berrikuntzak izan dira, eta nagusia ibilgailua da: "Aurrekoa baino handiagoa da, eta plaza gehiago ditu. 60 plaza dira, guztira, 21 eserita eta 39 zutik joateko

aukerarekin. Haur orgatxoentzako eta gurgildun aukietarako espazio nahiko du ibilgailu berriak, orain arte zuenaren bikoitza". Hiribusaren ibilbidea osatu dute, bestalde, eremu gehiagotara iristeko.

GORA ETA BEHERA



Giro ona

Urnietako Gazte Festak igaro dira urnietarren parte-hartze handiarekin. Eguraldiak lagunduta, ia ekitaldi guztiak aurrekusi bezala eraman ziren aurrera. Goizez, egunez eta gauez jaiak gozatzeko aukera ondo baino hobeto baliatu dute urnietarrek.



AIURRI

GORA ETA BEHERA



Tamalgarría

Astelehen gauez, Goibururantz doan errepede bazterrean sute handi samarra piztu zen. Sugarrak bertako edukiontzi-multzotik sortu ziren. Biharamunean, bistakoa zen erreketa eragindako txikizioa. Etenik ez duen joera tamalgarría da edukiontzien erreketa.



AIURRI

HAUTESKUNDE-KANPAINA

EKAINAK 9 EUROPAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEAK



AIURRI

EH Bilduren ekitaldia Andoainan

Larraitz Ugarte EH Bilduko zuzendaritzako kidea eta Ander Goikoetxea Amasa-Villabonako zinegotzia eta Eusko Legebiltzarreko hautetsia Zumea plazan izan ziren, astearte arratsaldean. Euskal Herria nazioa dela aldarrikatzeko aukera baliatu nahi du EH Bilduk, hauteskunde hauetan. Faxismoari aurre egin diezaiokeen alternatiba direla iritzi diote.

Lainez, debatean

Alderdi sozialistaren hauteszerrendan ageri da Maider Lainez Andoingo PSE-EEko bozeramailea. Astearte gauean ETB1 katean debatea antolatu zuten eta Lainez izan zen sozialisten bozeramailea. Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan ere hautagai izan zen Andoingo alkate ohia.



ETB



EAJ-PNV

Elola, EAJ-PNVren zerrendan

Europa Solidarioaren Aldeko Koalizioa (CEUS Coalició per una Europa Solidària) hainbat alderdiren artean sortu zuten eta tartean da EAJ-PNV alderdia. Andoingo Ainhoa Elola hauteszerrendan ageri da. Iraganean, Udal ordezkaria izan zen Andoingo udalean, 1999-2003 eta 2015-2019 agintaldietan.



Urtero bezala, ikuskizuna egin zuen Egape Dantza Taldeak, txupinazoaren ondoren. AIURRI

Ospakizunez beteriko Gazte Festak, Urnietan

Gazte Festak izan dira herrian maiatzaren 23tik 26ra. Egitarau oparoa antolatu dute herriko eragileek zein Urnietako Udalak, adin eta gustu guztiei begira. Parte-hartze handia izan da hitzorduetan, eguraldia aldeko egon den ospakizun-egunotan

Erredakzioa URNIETA

Uda sasoiko ospakizun-giroari hasiera ezin hobea eman diote Urnietan. Joan den asteko ostegunetik igandera, Gazte Festak izan dira herrian, eta, eguraldia

lagun, askotariko hitzorduz gozatzeko aukera izan dute festazaleek, goiz-goizetik hasi eta gaueko ordu txikietara bitarte.

Herriko judoken esku egon da aurtengo jaien pregoia, eta, behin

suziriak zerura botata, zer gozatu izan da herrian: buruhandiak eta erraldoiak, txaranga, olinpiadak, kantu-jira, mozo-rraok, kontzertuak, jolasak... Ez da ezer falta izan festetan.



Herriko judo-taldea izan da aurtengo pregoilaria. AIURRI

Ostiraleko mozorro-afaria



"Heldu festak" izan zen ostiraleko afari tematikoko gaia. AIURRI



Herriko gazteak, prest, asteburuari ekiteko. AIURRI



Ez zen umorerik falta izan hitzorduan. AIURRI



Ehun lagunetik gora bildu ziren mozorro-festan. AIURRI



Apiriletik hona, giro ezin hobea bildu da Olinpiadetan Finala egin zuten Gazte festen ostiralean. AIURRI



Hamarretan Makulu talde urnietarrak kontzertua egin zuen txupinazoaren ondoren. AIURRI



Kaleak dionuz eta kantuz bete zituen Kantazaunek, ostiral iluntzean. AIURRI



Ospakizun-giroa nagusitu zen Etxeberri plazan, ostiral arratsaldean. AIURRI



Kantoi, irabazle, aurtengo lehiaketan. AIURRI





Usubilgo kideak izan dira aurtengo gonbidatuak. Ez da jaialdira etortzen diren lehen aldia. AIURRI



Xoxoka Motor Klubak antolatutako Slalomak autozale andana gerturatu zuen Erratzu industriagunera. AIURRI



Pilota-partidek ikusmira handia sortu zuten, Kontzejupean. AIURRI

Urnieta Dantzan jaialdia



Danbolin Txistulari Banda, lerdiz plaza geldialdia egin ondoren. AIURRI



Jendetza gerturatu zen Urnieta Dantzan jaialdira. AIURRI



Bero handia egin zuen, baina hori ez zen oztopo izan dantzarientzat. AIURRI



Helduen taldea, emanaldiaren ondoren. AIURRI



Herri bazkaria izan zen San Juan plazan, Poxta Zaharrek antolatuta. AIURRI

KOMUNITATEA

POXTA ZAHAR URNIETA

Poxta Zaharrek behar zaitu!

Mezu garrantzitsu bat dugu zuretzat, urnietar! Urteak daramatzagu lehen lerroan, festen jai eta ekintza alternatiboen antolakuntzaren frontean, eta pixkanaka, ilusioa eta grina ordeztuz, nekea somatzen hasi gara. Azken urteetan, festen antolakuntza bukle amaigabe batean murgildu gara, Iñauteriak, urteurrena, Gazte Festak eta Sanmielak. Eta berriro hasi. Atsedetik gabe, kasik. Motibazioa beharrean erantzukizuna sentitu dugu. Eta

erantzukizun horrek erre egiten gaitu.

Beste herri modelo bat posible dela sinestuz murgildu ginen Poxta Zaharren, eta horretan jardun dugu, herria piztuz, hamaika ekintza burutuz, idatzita zegoena irauliz. Herria aldatzen jarraitzeko aurpegi berriak behar dira ezinbestean, haize freskoa, eta horrelako gutxi jaso dugu azkenaldian. Alde batera pausu bat emateko garaia iritsi zaigula uste dugu, belaunaldi berriek lekukoa hartzeko momentua

da. Horregatik, aurtengo gazte festak Poxta Zaharrek bakarlanean antolatzen dituen azkenak izango dira erreleborik egon ezean. Guk pixu gutxiagoko ekintza alternatiboak antolatzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu, antolatzeko gogoia dugun edozer, erantzukizunik gabe, herriko beste eragileekin batera elkarlanean, herria pizten jarraitzeko asmoarekin.

Poxta Zahar indarberritu eta haria ez eteteko zure beharra du Urnietak!

Sagardoa, Poxta Zaharren eskutik



Altuna sagardotegiko kideak, Kontsejupean. AIURRI



Poxta Zahar taldeak herriko sagardoa eskaini zuen plazan. AIURRI



Herriko ekoizleak izan ziren protagonista, sagardo-dastaketan. AIURRI



Herri bazkariaren atarian, plaza bete zen. AIURRI



Agenda,
argazki-bildumak,
bideoak...

ATAL BEREZIA webgunean

Urnietako
Gazte
Festen
jarraipena

w w w . a i u r r i . e u s

"Umoretsua da, baina baditu ikuslea hunkitzea lortzen duten elkarrizketak"

AINHOA ELIZONDO MUSIKARIA

Iduzkilore antzerki taldeak *Ihesi* antzezlana taularatuko du Goiburua auzoko San Esteban elizan, igande eguerdian



Ainhoa Elizondo antzezlaren afitzarekin. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Iduzkilore antzerki taldea aurkeztuko al zeniguke?

Senperen egoitza duen antzerki taldea da. Herri horretan sorginen inguruko historia berreskuratzeko herri ikuskizuna egin zutenean jaio zen. Ibilbide luzea egin du geroztik, eta hainbat

zuzendari izan ditu, hala nola, Ander Lipus, Manex Fuchs... Maika Etxekopar du zuzendari azken bi obretan. *Ihesi* azken antzezlanean, Bernadette Iratzoki, Maider Beheran eta hirurok taularatzen gara. Zuzendaria profesionala da eta antzezlariak amateurak. Kontuan

izan antzerkigintza izugarri sustraituta dagoela Iparraldean eta, beraz, hainbatetan oso lausoa da profesionalen eta amateurren arteko marra.

***Ihesi* antzezlaren nondik norakoa azalduko zeniguke?**

Euskal egileei (Pierres Lartzabal, Telesforo Monzon, Xabier Mendiguren...) heldu izan die batik bat taldeak, orain arte. Oraingoan, Pierre Palmade egungo autore frantsesa hautatu dute. Nolanahi ere, Maddi Zubeldiak itzultzeaz gain, egokitzapen lan izugarria egin du. Euskal Herriko erreferentziak txertatu ditu, eta hizkuntzaren aldetik ere, lapurtera eta baxenafarrera bikain zaindu ditu, hango adierak eta esaerak berreskuratuz.

Zuzendariak bikain bideratu gaitu, eta emankorra gertatu zaigu antzerkiaren sormen prozesua, hilabeteetan burutu duguna. Eztabaidak eta zalantzak eduki ditugu ez bakarrik pertsonajeak eraikitzeke orduan, baita ere zer nolako hizkuntza erabili behar dugun definitzeko ere. Azkenean, konplexurik gabe plazaratzea erabaki dugu; antzerkia eskaini nahi dugu, eta horrekin erantsirik doa hizkuntza ere eskaintzea.

Zer motatako antzerkia da "Ihesi"? Umoretsua da, baina baditu hunkitzea lortzen duten elka-

rrizketak; izan ere, hainbat gai ukitzen baititu, hala nola, amatasuna, gizakien arteko afektibitate, zahartzarua eta zahar etxeak... Alde horretatik, orain arte eman ditugun emanaldietan zera igarri dugu. Batez ere, emakumeak identifikatzen direla pertsonaiekin eta gaiak planteatzeko moduarekin.

Labur esanda, ihesari ekin dioten bi emakumeren historia kontatzen da, eta bakoitzari lotutako egoerak. Bata, semeak zahar etxean utzi du eta egoitzatik ihes egitea erabaki du, beti izan baita emakume askea eta ausarta. Bigarrena, familia tradizional bateko ama da, eta nahiz eta beti eduki izan duen barneratua etxeoandrea izatea dela bere eginkizuna, alabak 18 urte bete orduko etxetik urrundu egiten da, dena atzean utzita. **Eta gidoi horretan, zuri zein papera egokitzen zaizu?**

Bernadette eta Maider dira aktoreak, protagonista nagusiak, eta neu, hor, eszenatokian alde batera eta bestera dabilen hirugarren pertsonaia da. Eszenografia txikia eskatzen du obrak, egurrezko kuboan inguruan jolasten gabilta hirurak, baina neu mugitzen naiz gehien. Haiek ahoz mintzatzen diren bitartean, musika da nire hizkuntza, eskusoinuarekin.

Musikaria zara, eta orain antzerkirako jauzia egitea egokitu zaizu. Zer moduz ofizio berri horren azalduko du?

Aurreko obra batean antzeztu nuen paper txiki bat, baina gauza serioagoa da oraingoa. Egia da badakidala zer den musika irakaslea izatea, edo jendaurrean, plazan... musika zuzenean eskaintzea. Baina badago alde, eskusoinuaren atzean jartzea, ala, jendaurrean eta fokuen pean

interpretatzen hastea! Bada, zer esango dizut, polita izan dela *Ihesi* antzezlarekin eman dugun urtebeteko prestaketa! Aberasgarria izan da bizi izan dudan prozesu pertsonala, balio izan didalako lotsak alde batera uxatu eta eszenatokian nola mugitu ikasteko eta pertsonaia baten keinu eta mugimenduekin tratatzeke.

Musikaz arduratu zara antzezlanean. Jatorrizko obrak ez dauka musikarik, baina gure zuzendariak argi zeukan behar zuela, aberasgarria gerta zitekeela pentsatuta. Horrela, euskal abestiak erantsi zaizkio, herrikoiak eta modernoak, eta era berean, nik sortutako doinuak ere entzungo dira.

Hizkuntza aipatu duzu, lehen. Konplexurik gabe ibili zaretela.

Egundoko muga psikologikoekin segitzen baitugu alde bateko eta beste euskaldunak. Ulertezinaren ideia okerrarekin gabilta maiz, hizkuntzarekin ezin uler gaitetzkeela, alegia. Seguran, Anoetan, Aulestin, Zestoan... plazaratu dugu obra dagoeneko, eta ez dut uste benetakoa izan denik ulertezintasun hori. Amarekin proba egin nuen; Anoetako emankizunean izan zen, eta zintzo erantzuteko eskatu nion. Aitortu zidan bizpahiru hitz eta momentu kenduta, tramaren haria jarraitu zuela.

Pittin bat ahalegintzea izaten da hobena, gainditzeko buruan dauzkagun ezintasunak. Eta penagarria da, baina existitzen segitzen du muga horrek antzerkigintzan eta kulturako eta gizarteko beste arlotan, oraindik. Gure kasuan, harreman-sarea osatzen joan gara urtetan, eta pozik adieraz dezakegu *Ihesi* antzezlana zazpi herrialdeetan zabalduko dugula.



andoaINDARRA
euskaraz

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Igoera faseko final four txapelketa irabazi ostean, igoera lortu duzue. Zer datorkizu burura horri buruz galdera egiterakoan?

Jokalari aritu nintzen, lehenik, eta entrenatzaile lanetan hementzetan denboraldi egin ditut. Urteetako lana datorkit burura. Laugarren denboraldia da Leizaran Ernio Inmobiliaria taldean eta, urtez urte, hobekuntzak txertatu ditugu. Klubarentzat historia egin dugu, lehen aldia baita Euskal Ligara sailkatzea lortu dugula.

Aro bikaina osatzen ari zarete.

Taldearen ardura nere gain hartu nuenetik, jokalarik gazteak gehituz joan dira. Taldea, adinari erreparatuta, nahiko gaztea da, lehe taldera jubencil mailakoak sartuz joan garelako. Oro har, giza-taldea beretsua izan da azken bi urteotan.

Nola analizatuko zenuke ibilbidea, kirol ikuspegitik erreparatuta?

Emaitzak iritsi dira gure taldeak maila baduelako. Taldearen ardura hartu nuenean Gipuzkoako bigarren mailan ari ziren, baina lehen mailan aritzeko talentua bazuten. Egoera bestelakoa zen, eta lan eginez lortu dugu taldea Gipuzkoako lehen mailatik Euskal Ligara igotzea. Taldeak eman dezakeen maila dela uste dut, ez dago ezer bezirik. Denboraldi osoan erakutsi duten gaitasunaren ondorio da lortutako guztia.

Irailean hasita, maila berrian, zertarako gai garen ikusteke dago.

Igoera lortzea ez da batere erraza izan. Luzapenean erabaki zen dena.

Ia partida osoan markagailuan atzetik gindoazen, eta amaiera aldera berdinketa lortu genuen. Irabazteko aukera izan genuen, eta gol erabakiorra izan zitekeena atezainak gelditu zuen. Luzapena jokatzeko garaia iristean, errazagoa izan zen guretzat. Akaso ordiziarrak nekatuta zeudelako eta gu, aldiz, behetik gorantz gindoazelako, partida irabazi genuen. Halere, oso gogorra izan zen.

Ordizia, zuen azken aurkaria, aski ezaguna zaizue.

Partida gogorak jokatzen ditugu baina, behin amaituta, eurekin oso harreman ona dugu. Azken bi denboralditan zortzi aldiz jokatu dugu elkarren aurka. Zortzirak, partida estuak.

Ez litzateke arraroa izango Ordizia igotzea, eta zuek ez.

"Historia egin dugu Leizaran taldean"

XABI AMIANO LEIZARAN ERNIO INMOBILIARIA ESKUBALOI TALDEKO ENTRENATZAILEA Gipuzkoako lehen mailan gaikaldean finkatu ostean, udazkenean Euskal Ligan aritzeko aukera izango dute. Entrenatzailearen iritziz, talde lana giltzarri izan da



Xabi Amiano Allurralde Kiroldegia atarian. AIURR

Ez, ez. Edozer gerta zitekeen Majori kiroldegiko Final Four lehiaketan. Iaz, finalurrekoan Ordiziaren aurka galdu genuen. Oraingoa ere galtzear ginen. Talde gogorra da, txukun ari dira lanean eta azken urteotan goian daude.

Nola definituko zenuke zure taldea?

Jokalariek elkarren artean harreman ona dute, prestaketa saioetara datoz, gogo eta motibazioa ez zaie falta. Taldea dinamika onean denean hori guztia lortzea erraza da, baina gurean gauzak estutu direnean ere ez da joera hori aldatu eta elkarri lagundu diogu. Taldea

hartu nuenean helburu nagusia zen denon arteko harremanak onak izatea, gustura aritzea, prestakuntza saio onak egitea... Lortu dugu.

Zein asmo 2024-2025 denboraldirako?

Ez gara horretan hasi oraindik. Baina asmoa da Euskal Ligan lan txukuna egitea. Taldea sendotzen joan behar dugu. Gazteak izanik, beti dago hobetzeko aukera. Horretan ahaleginduko naiz, hutsuneak antzematen eta hobekuntzak txertatzen.

Aldaketa handia izango da?

Ez dakigu. Diotenez, zailagoa da igotzea mailari eustea baino. Ziur ez dugula lortuko goian aritzea, lehen denboraldian. Nesken adibidea aipatzea aproposa da. Lehen urtean justu-justu eutsi zioten mailari, eta bigarren urtean lan txukuna egin dute.

Klubak oso une gozoa bizi du. Senior mailako bi taldeak Euskal Ligan dira.

Senior taldeak alde batera utzita, beheko mailatan ere izan dira Euskal Ligarako sailkapen fasera iritsitakoak. Lan on bat egiten ari gara, eta hori azken urteotan agerikoa da. Euskal Ligan egoteak, gainera, gazte-txoak erakartzeko lagungarria izango da.

Gorantz doan kluba da gurea, harrobrian jende asko dugu.

Andoingo kirol azpiegitura berria errealitate bilakatzen bada, zuentzat albiste ona izango da hori.

Errepikatu izan dut Allurralde Kiroldegia, egin zen egunetik, txiki geratu zela. Leizaranen beti izan ditugu hamar taldetik

gora eta kantxa partekatu behar izan dugu saskibaloiarekin, areto futbolarekin, gimnasia erritmikoarekin, kiroldegiko ikastaroekin... Urte asko darabagu horrela. Ez dira baldintza onenak, ez. Aurten, klubak lan handia egin du eta lortu dugu inguruko beste kantxa batzuetan entrenatzea. Hala nola, Lasarte-Orian, Urnietan... Kantxa osoa guretzat dela entreatu ahal izan dugu. Eskubaloia-ri dagokionez, oso garrantzitsua da. Beraz, bigarren kirol erakina egiten denean, oso baliagarria izango da prestaketa saio hobeak egiteko.

Igoera lortu berritan, lehen segundu haietan, zer edo nor izan zenuen gogoan?

Nire alabak, eta familia.

Gorabehera handiak izan dituzu osasun arloan. Eskubaloia zuretzat oso garrantzitsua izan da.

Hamabi urte atzera, minbizia-ekin gaixo izan nintzenean, ez nuen eskubaloia alde batera utzi. Are gehiago, eskubaloia-ri esker, burua gaixotasunari loturiko pentsamenduetatik urrundu nuen. Eskubaloia denbora eskaini nion. Oso gogoko dut, eta formakuntzari tarte handia eskaintzen diot. Baita etxean nagoenean ere. Nire jakituria jokalariei helarazten ahalegintzen naiz. Etxean bi haur txiki ditut eta Haize bikotekideak laguntza handia eman dit. Eskerrak eman nahi dizkiot, neu entrenamenduetan nabilen bitartean bera baitago etxeko txiki-afaria ematen, lokartzen...

2025eko maiatzean non ikusten duzu zure burua?

Bide txukuna egingo dugula uste dut. Talde beretsuarekin jarraitze-ko aukera baldin badugu, behintzat. Uda eta gero, lana dela, Erasmus dela... Aldaketak egon daitezke denboraldia hasi bitarte. Gauzak ondo, estuasunik gabe mailari eustea lor dezakegula iruditzen zait. Euskal Ligako taldeen aurka lagunarteko partidak jokatu ditugunean, ez zait iruditzen aldea hainbestekoa denik. Hemen, Gipuzkoan, liga nahiko indartsua da. Igoera fasean, bizkaitarren aurka, aldea ez zen hain handia. Izan ditugu ligan partida zailagoak.

Datorrenarekin alderatuta, ez nago bereziki kezkatuta. Iaz, esaterako, Euskal Ligan aritzeko igoera lortu zuten bi taldeek sailkapenaren erdialdean amaitu dute denboraldia.

IRITZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Giroko notak

10a ziurra da, Pogacarrentzat, 0a bezain beste: RCS Giroko antolatzaileei, probako maila pobrea izan delako, eta ibilbidearekin komeriak izan direlako berriro.

10. Tadej Pogacar: Imperator, Ave Fenix, Alfa Otsoa... Nahi duzuen bezala deitu, baina bere nagusitasuna ikaragarria izan da. Jolasean ibili da aurkari guztiekin, eta gizon bat eta umeen arteko borroka ikusi dugu Giroan. Sei etapa irabazi ditu eta lider izan da bigarren egunetik bukaerara arte. Lehen egunean Narvaez lagartoak lapurtu zion legenda izateko erronka, horrek min pixka bat emango zion esloveniarrari.

9. Geraint Thomas: Bosgarren podiuma itzuli handietan, kirol ibilbide dotorez biribiltzeko. Hiru podium ditu Tourrean, bi Giroan. Igandean 38 urte bete zituen galestarrek. Egia da irauten, erasorik egin gabe lortu duela podiuma, baina hor egon da, eskarmentua erakutsiz, eta gazte ia guztiei ipurdia erakutsiz. Beste urtebetez jarraituko du tropelean.

8. Daniel Felipe Martinez: Bigarren postu ona kolonbiarrentzat, baina jarrera kontserbadoreegiarekin. Nahikoa izan du erlojupekoetan Thomas baino hobea izatea, bigarren postua ziurtatzeko. DNF-ek, dena den, hobe luke aste bateko itzulietan zentratzea, bere ohiko garaile sena berreskuratzea, zale guztien onerako.

7. Jonathan Milan: Bazetorren eta iritsi da. Hiru etapa garaipen eta maglia ciclamino-a lortu ditu. Eta hamarkadako trenoa izan daitekeena sortu Lidl-Trek taldearekin. Ikusgarria Bujako zezenak nola astintzen ditun pedalak esprintetan.



Martinez, Pogacar eta Thomas, aurtengo podiuma. AIURRI

6. Tim Merlier: Puntuazio apalegia da akaso, baina Merlier garaile handia da, eta hiru etapa eta Erroman atzo lortutako garaipenarekin oso ondo libratu du bere jarduna.

5. Alaphilippe, Pelayo Sanchez, Steinhäuser, Narvaez... Giroari distira eman dioten etapa garaileak. Alaphilippe zortzi ihesaldietan sartu da, Sanchez promesa izatetik errealitate izatera pasa da, Steinhäuser bezala, eta Narvaez-ek lehen etapa lapurtu zion Pogacar berari... Maila aparta denek!

4. Ezusteko italiarrak: Pellizari, Tiberi, Zanna, Fortunato, Piganzoli... Italiak badu harrobia, eta harrobi ona. Askoi saiatu dira, euren aberriko lasterketa onenean, batzuk besteak baino hobeto. Pellizari Pogacarren betaurrekoak eraman ditu, Tiberik 5. postua, Zanna eta Fortunato Top 10aren atarian geratu dira, eta Piganzoli igotzaile polita dator.

3. Bardet eta DSM: Inork ez zuen ulertu euren jarrera Passo

Brocon mendatean, eta azalpenik ere ez dute eman. Jan ez, eta jaten utzi ere ez!!! Garaipena usaindu gabe, eta nagusiko 9. postu batekin agurtu dira Girotik. Gutxi, eta itxura kaskarra emanda.

2. Desagertutako taldeak: Batzuk izan dira, baina parte hartzea ziurtatua dutenez... Nork ikusi du Giroan, Groupama-FDJ, Visma edo Intermarche-Wanty... Bitartean, neurria eman zezaketen Pro-Contiko talde asko, korritu ezinik, gonbidatu kopurua mugatua delako...

1. Giroa, parte hartzea: Ikuskizuna eman du Pogacarrek, handia gainera, baina garailea alde batera utzi eta aurkarien errendimendua eskas samarra izan da. Podiuma, Top 5a lortzeko apenas egon da borrokarik, eta euren arteko zaintza, gehiegizkoa. Ondorio gogorrago bat ere aipa daiteke: parte hartzea hobexegoa izan balitz, gaur Top 10ean ikusten ditugun asko ez genituzkeela bertan

ikusiko. Eta baieztapen hori aztertzeko, galdera bat: Giroko Top 10eko nor da Tourrean Top 5 izateko hautagai? Erantzuna garbia da: inor ez. RCS antolatzaile taldeak badu erantzukizuna gai honetan. Ona baita izar distiratsuen ziurtatzea, baina baita parte hartze hobegoa bilatzea ere.

0. Giroa, ibilbidea. Suspentso RCS antolatzaile taldeak. Eta handia. Berriz ere elurragatik ibilbidean komeriak izan dituzte, baina berriz ere alternatiba sinesgarri edo onik prestatu ez dutelako. Stelvion urte osoan egiten du elurra, 2.800 metro ditu, eta han baldintzak txarrak izan daitezkeenez, garaiera apalagoko mendateak dituen ibilbidea prestatu behar da, badaezpada. Hori egiteko aukera mugagabea da Alpe eta Dolomitetan. Zer gertatzen zaio RCS eta Vegniri? Betikoa. Sosak jarri dituzten herriek ziklistak ikusi nahi dituztela, sos galera handia ekar dezaketen kontratuak sinatzen direla, eta txirrindularia azken putz. Ez sinistekoa izan zen tropela noraezean ikustea Livignon, euritan, 3 gradurekin, Vegnik eta RCS-k azken segundora arte aurrez perstatutako ibilbidea egin nahi izan zutelako, egoskor. Trakets, baldar, RCS eta Vegni, eta ados Ben O'Connor australiarrek egindako kritikarekin: "Okerren antolatua dagoen proba da Giroa". Azkenerako data aldaketa egin beharko dute Alpeetako mendate garai eta ezagunenak igo ahal izateko...

**EKAINAREN 30EAN
HASITA, FRANTZIAKO
TOURRAREN
JARRAIPENA
AIURRI.EUS GUNEAN**

Urnietarrek Galarreta Jai-Alain dohainik sartzeko aukera izango dute

"Erremontari Herriz Herri" jardunaldia izan zen Gazte Festetan eta, honatx, emaitzak:

- Loitegi Eskudero 2
 - Gurrutxaga Aiestaran 0
 - Ansa II-Juanenea 2
 - Urriza-Barrenetxea IV 1
- Ostegun honetan, Sagardoaren txapelketaren jardunaldi berria ospatuko da Galarretan. Antolatzaileek iragarri dutenez, urnietarrek dohainik izango dute sarbidea: "Nortasun agiria erakutsita nahikoa izango da frontoira sartu ahal izateko". Jaialdiari hasiera arratsaldeko 17:30ean emango diote. Maiatzaren 30eko partidak:
- Arluziaga-Zaldua Irazu-Aiestaran VI.
 - Urriza-Martirena Seguroa-Larrañaga.
 - Ansa II-Zubiri Aldabe Juanenea.



Andoingo igerilariak Eskolarteko Kirol Jokoetan

Aurreko asteburuan Buruntzaldea IKT taldeko hainbat igerilari Euskadiko Eskolarteko 41. Kirol Jokoetan parte hartu zuten, Galdakaoko Urreta igerilekuan. Txapelketa horretan Gipuzkoako taldea ordezkatzu aritu ziren Itxaso Iparragirre, Oier Jauregi, Ander Martinez eta Liher Albi-zu. Lehen biak 200 bizkar eta lau estiloetako 100 metrokoan lehiatu ziren. Martinez eta Albi-zu, berriz, bular estiloko 100 metroko proban.



AIURRI

Iturzaeta txapelketaren amaiera

Herriarteko pilota txapelketa final laurdenetara iritsi da, eta Andoain herriak Zaldibiren aurka lehiatuko du. Finalurrean aritzeko txartela dago jokoan. Joanekoa ostiralean izango da, gaueko 20:00tan hasita, Zaldibin. Itzulera, Arraten. Kadeteak: Mikel Gaztañaga, Aimar Beroz; Jubenilak: Eneko Uria, Beñat Salbador; Nagusiak: Julen Urruzola, Eneko Beloki.



RAJADO / INSTAGRAM

Zegama-Aizkorriko partaideak

Urnietarren artean, hiru iritsi ziren helmugara: Unai Ezeiza Jauregi (4:27:00 / 54), Mikel Legarreta Astiasaran (4:56:49 / 139) eta Mikel Elorza Lasarte (5:11:26 / 163). Andoaindarren artean, bi: Asier Rajado Barberena (4:34:22 / 79) eta Oier Escudero Mendizabal (4:36:25 / 87). Maialen Gurrutxaga Perez erretiratu egin zen.

Andoain pala motzean eta larruzkoan bale, gomazkoan kale

Pala motzean eta larruzko paletan, Herriartekoan, Andoain herriak Ordizia 2-0 garaitu zuen (35-19, 40-22). Itzuliko partidak Ordizian jokatu dira, ostiral honetan, 19:30ean hasita. Gomazko paletan, Andoain kanporatua izan da, Aiaren aurka 1-2 galdu ostean (20-15, 3-20, 4-20).

Kontsejupeko partida berriak, datorren astearte eta asteazkenean

Sanjuanetan jokatu da txapela, partida erabakiorrak jaietan izango baitira. Bien bitartean, aurrera darrai txapelketak. Asteartean hiru partida jokatu ziren (Beldarrain-Aimar vs Arizaga-Miera; Belauntzaran-Alkorta vs Gaztañaga II- Beroz II ; Manteola-Rodriguez vs Landa-A. Gaztañaga). Asteazkenean beste bi partida gehiago (Salbador-Arruti vs Loidi II- Arberas; Jauregi-Lontxo vs Ezeiza-Larralde).

Andoaindarrak boxeo jardueran

Sorabox Boxeo Klubak borrokaldi gaua antolatu du Hernaniko Kiroldegian. Ekainaren 15ean izango da, 18:00tan hasita. Nura Ariztimuño andoaindarra eta Iker Mujika adunarra ariko dira. Azken honek debuta egingo du boxeotan.



AIURRI

Euskaldunako jubenilak, finalera

Emozio handiko partida jokatu zen larunbatean, Ubitarten. Euskalduna eta San Tomas Lizeoa 2-2 berdinketarekin iritsi ziren partidaren amaierara. Luzapena jokatu eta penaltiak jaurti ostean, Euskaldunak lortu zuen finalerako txartela. Finala Bergarako Agorrosin zelaian izango da, larunbat honetan, goizeko 11:30tan hasita. Aurkaria Aloña Mendi B izango da.



URNIETA KE

Eskubaloiko seniorrak, finalera

Liga amaituta, kopari heldu zion Urnieta Artola Harategia taldeak. Albiste pozgarrien iturri dira urnietarrak, Gipuzkoako Kopako finala jokatzeko sailkatu baitira. Aurreko asteburuan Aloña Mendi taldea garaitu zuten (29-17). Urnietarrek Bergararen aurka jokatu beharko dute finala, larunbat honetan, arratsaldeko 16:15etan hasita, Zumarragan.



ERREMONTARI

MAIATZAK 30 OSTEGUNA 17:30EAN

GALARRETA JAI ALAI HERNANI

SAGARDOAREN
TXAPELKETA
2 0 2 4



01. partida (3 setera)

ARLUZIAGA · ZALDUA vs
IRAZU · AIESTARAN VI

02. partida (3 setera)

ABURUZA · URRIZA · MARTIRENA vs
Pelotari **SEGUROLA · LARRAÑAGA**

03. partida (3 setera)

BEREZIARTUA · ANSA II · ZUBIRI vs
GURUTZETA · ALDABE · JUANENEA



SARRERAK ENTRADAS














HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 31

ANDOAIN Bilera

Palestinaren egoeraren inguruan sensibilizatuta dauden hainbat lagunek deitu dute.

18:30, Arrate.

ANDOAIN Ikuskizuna

"Itsasoa bide bakarra" musika eta folklorea Ines Osinagaren eskutik.

20:00, Bastero.

LARUNBATA 1

ANDOAIN Ikuskizuna

Gipuzkoan Gazte Tour: Soge Culebra, Anixe, Lax Lazaro. Azkena Unai Garcia andoaindarraren 'alter ego'-a da.

20:00, Bastero.

IGANDEA 2

ANDOAIN Dantza

Urkik antolatuta, 34. Andoingo Euskal Jaialdia. Hainbat gonbidatu hurbilduko dira.

Egun osoan.

ANDOAIN Antzerkia

"Ihesi" Iduzkilore antzerki taldearen emanaldia. Sarrerak salgai, 5 eurotan. Saltokiak: Urrats, ermita.

12:00, San Esteban basiliza.

OSTEGUNA 6

ANDOAIN Entseguak

Axeri-dantza prestatzeko entseguak, Ondarreta ikastetxeko jolastokia estalian.

19:00-20:00, Ondarreta.

Ekainak 6, 11, 14, 17, 20.

LARUNBATA 8

ANDOAIN Kontzertua

"Berrito asma nazazu" lan berria eskainiko du Tenpora taldeak.

19:00, Bastero.

URNIETA Ospakizuna

Laster da urnietarra. 1974 urtean jaiotakoek bazkaria egingo dute Oianumen.

Bazkaria Oianumen.



Maddi Zumalabe Irastorza artistaren eskulana. ZUMALABE

ANDOAIN Azken orduko aldaketa erakusketa aretoan

Hilaren 30erako aurreikusita zegoen Rakel Ubagoren 'Continuo-Discontinuo' erakusketa bertan behera geratu da eta, haren ordean, Maddi Zumalabe Irastorza artistaren 'Laua eta Sakona' lana jarriko dute ikusgai.

Ekainaren 7tik uztailaren 5era bitarte Bastero Kulturgunean.

IGANDEA 9

ANDOAIN Haur antzerkia

"Bo jauna" maskara eta komedia uztartzen dituen lana da.

12:00, Bastero.

LARUNBATA 15

ANDOAIN Rock Jaialdia

Eguerdiaren emanaldiak hainbat tokitan. Jaialdi nagusia, arratsaldean.

18:00, Nafarroa plaza.



ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Siempre nos quedará mañana**

Igandea, 2.

19:30.

Astl, 3. 19:30,

22:00.

Pandilla al rescate

Ig, 2. 17:00.

Iris

Larunbata, 8.


19:30, 22:00.

Igandea, 9.

19:30.

Astl, 10. 19:30,

22:00.



SINOPSISIA

**Siempre nos quedará mañana**

Zuzendaria: Paola Cortellesi. Aktoreak: Paola Cortellesi, Valerio Mastandrea, Vinicio Marchioni... Herrialdea: Italia (2023).

Hizkuntza: Gaztelania. Generoa: Drama, komedia. Iraupena: 118 min.

Italian, arrakasta handia izan duen filma Basteron eskainiko dute

Udaberria da, eta familia osoa aztoratuta dago. Alaba nagusia Marcelle berehala ezkonduko da. Neskatoak, bere aldetik, Giulio klase ertaineko

mutil atsegin batekin azkar ezkondu eta, bebingoz, bere familia deserosotik libratzea besterik ez du espero.



Urnieta
udala



AIURRI

1974an jaiotakoen bazkaria

50 urte betetzear dira, edo beteko dituzte, argazkian ageri direnak. Urtebetetze borobilera iritsita, urte berean jaiotakoen bazkaria hitzordu interesgarria izan

ohi da haietako gehienentzat. Aurreko larunbatean Andoainen 1974an jaiotakoen ehundik gora lagun elkartu zen.



lazko jaialdia. AIURRI

Andoaingo Euskal Jaialdia, igande honetan, Andoainen

Urki Dantza Taldeak antolatuta, gonbidatu ugari hurbilduko dira egitaraua borobiltzera

Erredakzioa ANDOAIN

Gonbidatu ugari hurbilduko da, aurtengoan ere, Andoaingo Euskal Jaialdira: Baiona, Zornotza, eta Añorgako dantza taldeak, Urnieta eta Amasa-Villabonako trikitrilariak, Huarte-Iruñako joteroak, Deba eta Lizarrako gaiteroak, Arrasateko erraldoi txikien konpartsa eta Lasarte-Oriako bertsolariak. Haiekin batera, nola ez, Andoaingo trikitilariak, txistulariak, bertsolariak eta Urki Dantza Taldeko kideak dira.

Jaiari murgiltzeko gonbita andoaindarrei

Antolatzaileek mezu argia igorri die herrikideei, Euskal Jaialdian murgildu daitezten: "Goizean, kale eta plazatan; eguerdian, Goikoplazako ekitaldian; eta, arratsaldean, erromerian. Jaialdira gerturatu eta ospakizunaz gozatu!".

Hitzordu nagusiak Goikoplazan

10:30 Agurra eta desfilearen hasiera. Emanaldiak Plaza Morean, Juanita Alkain plazatxoan, Espigoian, Zumea plazan... emanaldiak eskainiko dituzte

13:15 Jaialdi nagusia.

17:00 Bertsolari txikien agurra eta erromeria Gaur 8 Andoaingo gazteek osaturiko musika taldearekin.

Jaialdiaren antolaketan laguntza handia eskaintzen dute herriko hainbat eragilek. Gonbitauek Aita Larramendi ikastolako eta La Salle Berrozpeko jangeletan bazkalduko dute. Lehenago, hamaiketako eskainiko zaie Andoaindarra, Ontza, Irunberri, Sant Krutz Peña eta Zumeatarra elkarteetan. Urkik esketza adierazi nahi die familiei, elkartei, ikastetxeei, Naroa Asensio kartel egileari, txistulariei eta Andoaingo Udalari.



UDAL MUSIKA ESKOLA

Gitarra jole bikaina

Bilboko nazioarteko Cristomo de Arriaga gitarra txapelketan hirugarren saria eskuratu du Kerman Miguel Novoa andoaindarrak. Txapelketa berean Euskal Herriko interprete onenaren saria jaso du. Andoaingo Udal Musika eskolako ikaslea da Novoa gaztea. Sailkapen nagusia: 1. Xinyan Zun (Zhejiang-China); 2. Heribert Puig (Barcelona); 3. Kerman Miguel Novoa (Andoain-EH).




BM

Supermerkatu berria Andoainen

Andoaingo Zumea plazan, Oreka dendako ateak itxi eta aste gutxira, BMren frankizia bat zabalduko dute ostegun honetan: "4.000 erreferentzia izango ditu harategiko eta ontziraturako urdaitegiko produktuekin, zerbitzu libreko frutarekin eta okindegiko labearekin". Dendan sei profesional ariko dira, astelehenetik igandera, goizeko 08:00etatik gaueko 22:00etara.

ZORION-AGURRAK




ANDOAIN
Zorionak Jon
Maiatzaren 28an 12 urte beteko dituzu. Urte askotarako Jon! Zorionak etxeko guztien partez.



ANDOAIN
Josu Rabadan Larrea
Etxeko txikiena zara eta dagoeneko 5 urte. Eguna ederki pasa. Asko maite zaitugu.



ANDOAIN
Zorionak Zorionak
Ekainaren 2an, Joxe Marik 60 urte beteko ditu. Urte askoan! Behar den bezala ospatuko dugu. Muxuak



ANDOAIN
Oinatz Zatarain
Maiatzaren 23an 13 urte bete zituen. Zorionak etxeko guztien partetik, eta baita Unax eta Anerren partetik ere.

Plenoak, ostegun honetan, Andoainen eta Urnietan

Urnietako Udalak ohiko osoko bilkura ospatuko du ostegun honetan, maiatzaren 30ean, 19:00etan hasita. Andoaingo ordu berean eta egun berean izango da.

Zaintza hizpide hartuta, galdeketa Urnietan

Urnietako Gizarte Zerbitzuetako sailak zaintza ekosistema berria garatzeko galdetgia luzatu die herrikideei. Orotara, buzoiak eta bide telematikoa kontuan hartuta, 100 erantzun jaso ditu.

Unai Garcia andoaindarra Gazte Tour jaialdian ariko da

Lax Lazaro du alter-egoa, musika proposamen berrian.
Soge Culebra eta Anixe taldeen aurretik ariko da, Basteron

Erredakzioa ANDOAIN

Larunbat honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatzen duen Gipuzkoan Gazte Tour musika proposamen berritzailea Andoainera iritsiko da. Hiru talderen artean jarraitzaile gehien dituen Gabriel Gomez 25 urteko murtziarra da. Soge Culebra da bere izen artistikoa duena. Harekin batera bi euskal pro-

posamenez gozatzeko aukera izango da. Anixe arrasatearrak, bere aldetik, reggaettoa eta afrobeat musika eskainiko du. Apirilean "Bakarrik" kantu berria aurkeztu du. Hirugarren proposamena herrikoa bertakoa da: Unai Garcia, kasu honetan, Lax Lazaro. "Cantares al Amor Fallido" estreinaldiko albuma eskainiko du Basteron. Genero

eta soinu ugari uztartu ditu hamar abestitan. Garciak duen musikarekiko zaletasuna ez da proposamen horretara mugatzen. Nunk musika taldeko baxu-jotzailea ere bada, eta aurkezpen diskoa irailean kaleratuko dute.

Hogeita bat urteko gaztea izanik, ekimen artistiko handia erakutsi du denbora-tarte laburrean. Berriki, "Andoain Laburrean" laburmetrai lehiaketaren lehen saria eskuratu du. "Otsailaren 15a" izeneko ikus-entzunezkoan, suizidioaren gaia hizpide hartu zuen.

Ostiral honetako emanaldia 20:00tan hasiko da, eta sarreraren prezioa 3 eurokoa da.



"Lax Lazaro" du izen artistikoa. Argazkian, Unai Garcia andoaindarra. LAX LAZARO

Luis Fracari gorazarre, Basteron

Andoaingo Udal Musika Eskolako eta Bandako zuzendaria izan zen Luis Fraca (1929-2024). Aurreko igandean omendu zuten Bastero Kulturgunean, eta bertan egon zen Alicia Sanz alarguna. Hunkituta zegoen, berriki hil baita Luis Fraca



Marta Lasa Kultura zinegotzia, Alicia Sanz Fracaren alarguna, Andoni Alvarez alkatea, Ixiar Oreja aurkezlea eta Myriam Ulanga piano-jotzailea eta Udal Musika Eskolako irakaslea. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Luis Fraca garrantzi handiko pertsona izan da Andoaingo Udal Musika Eskolaren eta Bandaren historian. Arrasto sakona utzi zuen hainbatengan. Horrez gain, Andoain baliu handia duten hainbat piezen sortzailea da.

Aurreko igandean omenezko kontzertua antolatu zuten Andoaingo Bastero Kulturgunean. Bertan izan zen Fracaren alargun Alicia Sanz. Hunkituta agertu zen, andoaindarren aldetik eta Udalaren aldetik jasotako tratuekin

Luis Fracaren erreperitorioa biziberritu zuten

Hainbat musikaririk hartu zuten parte omenaldian, haren erreperitorioa biziberritzeko baliatu zutena. Myriam Ulanga (pianoa), Mirari Irurtzun (biolina), Txitxu Castro (pianoa-teklatura), Gorka Otamendi (perkusioa), Elena Gorrotxategi (flautina-flautina),

Koldo Salaberria (tronpa-tronpeta), Ane Urbizu (eskusoinua), Mikel Emezabal (klarinetarekintoa) eta Claudia Alduncin (klarineteta-klanrinete-baxua) zuzenean aritu ziren. Haiekin batera, Ainhoa Merzero sopranoa eta Erik Carrero tenorea. Segidan, Mikel Emezabalek zuzentzen duen Udal Musika Bandak saioa eskaini zuen. Ixiar Oreja aritu zen aurkezle lanetan.

Ekitaldian, Luis Fracaren ibilbidea hobeto ulertzeko ikus-entzunezkoa eskaini zuten. Aitor Arruti izan da ekoizlea.

Amaiera hunkigarria

Andoni Alvarezek adierazpena egin zuen, Fracari gorazarre egiteko. Segidan, Fracaren alargun Alicia Sanz oholtzara igotzera gonbidatu zuten. Txalo zaparradaren erdian, erabat hunkituta agertu zen. Oroigarriak jaso ostean, ekitaldia Luis Fracak berak sortu zuen "Andoain" eraserkiarekin amaitu zen.



Luis Fracaren
omenezko kontzertua
ikusgai

Argazki-bilduma, bideoak...

WEBGUNEAN IKUSGAI

www.aiurri.eus